

ASTEARTEA

2022/06/21

10. urtea, 1.621. zenbakia

107.6 fm

Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85 €

Etxebizitza hutsak merkaturatzea helburu duen protokoloa

Tolosako Udalak eta Alokabidek hitzarmena sinatu dute, etxebizitza hutsak merkaturatu eta alokairu babestuko aukerak areagotzeko; etxebizitzak birgaitzeko diru laguntzak jarriko dituzte martxan udazkenean // 2

EH Bilduk gardentasuna eskatu dio Tolosako udal gobernuari // 2

Joseba Lopez garaile, Jose Mari Anzaren oroimenezko proban // 7



TOLOSA KUADRILLEN FESTA

Beroa jai giroarekin nahastu da asteburuan Tolosan, Kuadrillen Egunarekin eta haurrei zuzendutako ekitaldiekin; sanjoanek ostegunetik aurrera jarraipena izango dute, eta Abaltzisketan eta Belauntzan ere ospatuko dituzte // 4-5

TOLOSako UDALA



BERASTEGI – ATEGI II

12 ETXEBIZITZA TASATU
3 LOGELA ETA 2 BAINUGELA
GARAJE ITXIA BARNE
EGIN ZURE ERRESERBA!

 **175.476€-tik hasita**

 **CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L.**

Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484

Tolosako Udalak eta Alokabidek lankidetzaren hitzarmena sinatu dute

Etxebizitza hutsak merkaturatu eta alokairu babestuko aukerak areagotu nahi ditu udalak; udazkenean informazio saioak egingo dituzte herritarrekin

Josu Artutxa Dorronsoro

Alokabide SA Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailarekin lankidetzaren protokoloa sinatu berri du Tolosako Udalak. Protokoloaren helburu nagusia etxebizitza hutsen programen kudeaketa sustatzea eta erakundeen arteko lankidetzaren indartzea da; herritarrei erraztasunak emateko etxebizitza eskabideak kudeatu eta bideratzeko orduan, udalak bitartekari gisa jardungo du Eusko Jaurlaritzako programetan (Bizigune, Asap eta Gaztelagun).

Olatz Peon Tolosako alkatea adierazi duenez, etxebizitza hutsak mobilizatu nahi ditu udalak, alokairu babestuko aukerak areagotzeko: «Tolosan dagoen etxebizitza eskari altuak eta etxebizitza hutsen kopuruak, etxebizitza-sailaren eta udalaren esku-hartze publiko zuzena egitera eramane gaitu, etxebizitza hutsak merkaturatu eta etxebizitza aukerak sustatzeko helburuarekin». 2019an egindako etxebizitza hutsen azterketaren arabera, hutsik dauden 253 etxebizitzetatik gehienek birgaitze sakona behar dute bizigarritasun baldintzak bete eta alokairuan jartzeko.

Udalak etxebizitza hutsak birgaitzeko diru laguntzak abiatuko ditu udazkenean, eta horiek jaso ahal izateko beharrezkoa izango da Alokabideren programaren batean (Asap edo Bizigune) izena emanda egotea. Alkatea azpimarratu duenez, etxebizitza hutsak birgaitzeko diru lagun-



Olatz Peon alkatea eta Xabier Balerdi zinegotzia, lankidetzaren hitzarmenaren aurkezpenaren. J. ARTUTXA

tzak eskuratzeko baldintzak egokitu ditu udalak, helburu bikoitzarekin: «Jabeek aukera gehiago eta baliabide gehiago izatea etxebizitza hutsak birgaitzeko, eta tolosarrek alokairu babestuko etxebizitza aukera zabalagoa izatea».

Xabier Balerdi etxebizitza sailko zinegotzi arduradunak azaldu du diru laguntza lerroaren egokitzapenaren zergatia: «Lehendik etxebizitza hutsak birgaitzeko diru laguntzak ematen genituen, baina eredu horri jarraiki oso etxebizitza gutxi merkaturatu ditugu azken urteetan, inbertsio oso handia eginda, gainera».

Horretarako, Eusko Jaurlaritzak, Alokabideren bitartez ematen dituen diru laguntzak osatuko ditu udalak, etxebizitza huts gehiago alokairuan jar daitezkeen.

Alde batetik, Alokabidek aurrerakina eskainiko du etxebizitzan berriztatze lanak egiteko (%0ko interesarekin), eta udalak, etxebizitza hori birgaitzeko diru laguntza bat ere emango du, obren kostu osoaren %50 izango dena. Udalaren diru laguntza 4.000 eurokoa izango da gehienez ere, eta etxebizitza Tolosako Alde Zaharrean kokatuta badago, 8.000 eurokoa. Etxebizitza hutsen jabeek, gainera, Jaurlaritzak ematen dituen berme guztiak izango dituzte.

Udalak ezinbestekotzat jo du Alokabideren etxebizitza hutsak alokairuan jartzeko programak dinamizatzea Tolosan, herrian dauden etxebizitza huts guztietatik ahalik eta gehien babestutako alokairuan eskuragarri jartzeko. Programa horien bitartez,

erabilera soziala eman nahi die udalak hutsik dauden etxebizitzetara. Ondoren, Etxebide Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan izena emanda dauden eskatzaileei esleituko zaizkie bizitokiak, eskatzailearen diru-sarreraren arabera, betiere merkatu librean dauden prezioen azpiko alokairu errentekin.

HERRITARREKIN, UDAZKENEAN

Tolosarrei arreta eta aholkularitza eskaintzeko helburua ere ezarri duela udalak esan du Peonek. Horri lotuta, herritarrei eskura dituzten aukeren berri emateko informazio saioak egingo dituzte udazkenean. Saio horietan, lanketa berezia egingo da auzoetan, etxebizitza huts gehien atzeman diren gunetan, alegia.

Gardentasunez jokatzeko eskatu dio EH Bilduk udal gobernuari

Likidazioari buruzko informazioa tolosarrei ere zabaltzea exijitu dio; «berriro ere guk egin dugu lan hori», esan dute

J.A.D.

Maiatzeko osoko bilkuran, gardentasunez jokatzeko eskatu zion Tolosako EH Bilduk udal gobernuari; udalbatzari 2021eko likidazioaren berri eman zitzaien bezala, herritarrei informazio hori zabaltzea eskatu zion oposizioako zinegotziek. «Baina, berriro ere EH Bilduko zinegotziok egin dugu udal gobernuak egin ez duen gardentasun lan hori, azalpenak emanez, tolosarrek datu guztiak eta errealitatea osotasunean ezagutzeko».

Aurreko urtean aurreikusitako inbertsio eta gastuetatik benetan zein kantitate erabili den erakusten du likidazioak. «27 milioi euroko gastua aurreikusi bazen ere, urte bukaerarako 35 milioietara igo zen kreditu aldaketan bidez. Horrek pentsarazi dezake tolosarren ongizatea areagotzeko inbertsioa handituko zuela gobernuak, baina 26 milioi baino gutxiago erabili dira, hau da, behin betiko aurrekontuaren %74», adierazi dute oposiziotik.

Inbertsio publikoari dagokionez, udal gobernuak «atzeratutako proiektuak gauzatzeko» jarraitzen duela salatu dute. «Hala ere, aurreikusitakoaren %30 bakarrik inbertitu da, 6,6 milioi eurotik 2 milioi besterik ez. Ez dugu zalantzarik legealdiko azken urte honetan argazkia aldatuko dela, eta inbertsioak asko handituko direla, hiru urteko eragin-kortasun falta makilatuzko».

ESKURATU MARIA ALTUNA ILUSTRATZAILEAK DISEINATUTAKO Q&QRIKO MATERIALA!

Deitu
943 65 56 95
edo
pasa bulegotik!

KATILUA
Atarikideak:
9 euro.
Atarikide ez direnak:
11 euro.

BOTILA
Atarikideak:
9 euro.
Atarikide ez direnak:
11 euro.

POLTSA
Atarikideak:
8 euro.
Atarikide ez direnak:
10 euro.

PACK-A
Atarikideak:
20 euro.
Atarikide ez direnak:
26 euro.



zozketak

Atarikideentzat liburu bat dugu

Jon Maiaren
Berriak jaio ginen
liburua



Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte 943 65 56 95 edo www.ataria.eus



ANOETARREN FESTA

Pasa den asteazkenean festen suziria lehertu zenez geroztik, festa egun beteak izan dituzte Anoetan. Kukuak adin eta gustu guztietarako beste ekitaldi ekarri ditu, eta guztiez gozatze-ko aukera izan dute herritarrek. Tartean, ostiralean, gazte-
txoak agertoki gainera igo ziren play back saioan parte hartze-ko —irudian—. Orain, atsedeen egun batzuk dituzte tarteko eta prest izango dira sanjoanak ospatzeko. I. GARCIA LANDA



MAGIARA GERTURATUZ

Magia Eguna ospatu zuten larunbatean, Zizurkilen. Askotari-ko ekitaldiak izan zituzten, eta goizean, **Magia ere neskentzat badataillerra** egin zuten. Arratsaldean, Txoborro, Eriz eta Ho-dei magoek eskainitako ikuskizunaz gozatu ahal izan zuten, eta gauean, Magia Gala Nagusia egin zuten. ATARIA

Gizonezko bat hil da Baliarrainen izandako istripuan

BALIARRAIN // Ostiral goizaldean izan zen istripua, Baliarraingo GI-3851 errepidean. 01:00 aldera gertatu zen ezbeharra, eta autoa errepidetik irten eta hainbat bira eman ondoren irauli egin zen. Larrialdi zerbitzuetako langileak abisua jaso eta berehala bertaratu baziren ere istripuko tokira, lesio larriak zituen gidariak eta bertan hil zen. Ikaztegietakoa zen gizonezkoa eta 74 urte zituen.



igandean, Baliarrainen. ATARIA

'Suak harrotuz' ibilbide antzeztua, gaur, Alegian

ALEGIA-BALIARRAIN // San Joan jaien bueltan, aurten ere, eskualdeko herriak zeharkatzen ari da **Suak harrotuz** ibilbide antzeztua. Herriko txoko ezberdinetan kokatuta solstizioa, ohiturak eta emakumeen lana jartzen dituzte baloreen. Gaur, Alegian eskainiko dituzte saioak 17:00etan hasita, eta parte hartzeko beharrezkoa da izena emana izatea. Igande arratsaldean, berriz, Baliarrainen izan ziren eta adin guztietako herritarrei zabaldu zieten beraien mezua.



AZKENEKOLAN HERIOTZA SALATU DUTE

Kontseilu Sozialistak deituta elkarretaratzea egin zuten ostiralean, Tolosan, pasa den asteko astearte goizean Idiazabalen izandako azken lan heriotza salatzeke. Hildako langileak 49 urte zituen, eta tolosarra zen. Idiazabalgo Urtsuaran basoan ari zen lanean enborrak mugitzeko makina batekin eta dirudienez, pinu bat erori zitzaion gainera. ATARIA



ARGAZKIRIK ONENAK

Targazki Tolosaldeko Argazkilari Taldeak antolatzen duen Tolosa Herria 2022 Argazki Lehiaketako bederatzigarren edizioeko sariak banatu zituzten, larunbatean. 204 lagunek hartu dute parte, eta guztira, 783 argazki aurkeztu dituzte. Javier Ortiz Moreno izan da Tolosaldeko Txapelduna. Gai librean saritua Joakin Adan izan da, eta bertako saridunetan lehen Ruben Caceres izan da. Gazteen artean, berriz, Amaiur Ugalde izan da irabazlea. JOSU ARTUTXA



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 MENDEXA AVENTURA PARK

Bi lagunentzako
bina sarrera

www.mendexpark.com
688 85 62 83
MENDEXA



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako
bina sarrera

aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52



3 URDAIBAI BIRD CENTER

Bi lagunentzako
bina sarrera

Aranzadi Zientzi Elkartea
Orueta 7, Gautegiz Arteaga
946 25 11 57
portuzar@birdcenter.org
www.birdcenter.org



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

Parte hartzeko deitu 943 09 06 08 telefono zenbakira edo sartu Ataria.eus webgunean • Parte hartu aste honetako asteartetik osteguneko 11:00ak arte. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

Sanjoanekin hasiko da jaien soka luzea

San Joan jaiak ospatuko dituzte datozen egunetan Tolosan, Belauntzan eta Abaltzisketan; Tolosan sexu indarkeria matxistarik gabeko festak aldarrikatu dituzte

Erredakzioa

San Joan jaiak ate joka dira. San Joan egun bezpera izango da ostegunean eta horrekin batera hasiko dira egitarau zabalak Tolosan, Belauntzan eta Abaltzisketan.

Oharrei dagokienez, kontuan hartu beharko da Tolosako Rondilla kalea itxita egongo dela trafikoa erantzut ostiralean, hilak 24, 07:00etatik 00:00etara. Ondorioz, Rondilla kaleko 34. zenbakiko autobus geralekua Santa Klarara (Zumarditxikia) aldatuko dute.

Tolosako jaietako egun nagusia ekainaren 24a izaten da, baina jai giroa lehenago lehertzen da. Larunbatean Kuadrillen Eguna izan zen eta igandean musika, haur ikuskizunak eta antzezlanak izan ziren.

JAIPAREKIDEAK

Tamalez jai giroan nahi baino ohikoagoak izaten dira eraso matxistak, eta hori dela eta, Tolosako Udalak kezka azaldu eta adierazpen bateratua onartu du. Iragarri du era berean, Udal-tzaingoak 24 orduko arreta zerbitzua eskainiko duela 943 67 58 58 telefono zenbakian.

Adierazpen bateratuan udalak

esan du emakumeek jaiak «askatasun osoz gozatzeko eskubidea» dutela eta horren alde egingo duela lan gaineratu du. «Jaietako aisia eta gozamenak emakumeen eskubidea da, eta eskubide hori berdintasunean gauzatzeko aukera izan behar dute. Jaietako sexu indarkeria emakumeen askatasunaren, mugikortasunaren eta segurtasunaren aurkako eraso da, gizartearen errotuta dagoen indarkeria sexistaren eta matxismoaren adierazlerik ankerrena». Sexu erasoak pertsonen giza eskubideen eta askatasunaren kontrako eraso zuzenak direla esan du eta onartezinak direla gaineratu. «Erasoak ez dira jolas dibertigarri eta hutsal baten ondorio, indarkeria matxistaren ondorio baizik».

Tolosak jai berdinzaleak nahi dituela esan dute adierazpenean eta indarkeria matxistaren aurrean udalak zero tolerantzia izango duela esan du. «Eraso-tzaileek ez dute tokirik gure herrian eta irmotasunez erantzun-go diegu beti eraso sexistei. Gertakari horiei aurre egiteko gizarte osoak konpromiso aktiboa har dezan eskatzen diogu herriari. Gizarte guztiaren jarraera aktiboa ezinbestekoa delako behin betikoz indarkeria matxis-



Tolosako San Joan jaien barruan Haurren Hiria ekimena izan zen igandean, Zumardiaundian. LEYRE CARRASCO

tarekin amaitzeko; jaiak libre eta bake giroan igarotzeko, emakume bat bera ere gehiago ez dadin erasotua izan, ez jaietan, ezta bere egunerokoan ere».

Bide horretan gizonezkoak matxismoaren aurkako pakto bat egiteko «aktiboki» behar dituztela esan dute adierazpen bateratuan, «haien erantzukizunaz ohartarazteko eta indarkeria matxista errotik ezabatzeko ez daitezen konplize izan erasoan,

tratu txarren eta sexu indarkeriaren aurrean».

Horiek horrela, udalak esan du #LIBRENonhai kalkomaniak banatu dituela eta eskuragarri jarriko dituela eraikin publikoetan, eta Joka Sano kartelak jarriko dituztela herrian zehar.

Era berean, panel digitaletan 24 orduz arreta zerbitzuko telefono zenbakia azalduko da eta tabernariak gutun bat jaso dute eraso sexista bat gertatuko balitz

jarraitu beharreko gomendioekin.

Itaia Emakumeen Antolakunde Sozialistak bere aldetik, telefono zenbaki bat jarri du herritarren eskura eraso matxista bat jasan edo eraso baten lekuko izan direnek deitu dezaten. 624 594 097 da telefono zenbakia.

Tolosako Asanblada Feministak festetan ematen diren eraso matxisten aurrean autodefentsa feminista aldarrikatu du.

*Jaietan ere, zaindu maite duzun hori.
Gozatu eta ondo pasatu!*

Lopez-Mendizabal Pasealekua Ibilbidea, 3 behea.
20400 TOLOSA (Gipuzkoa)

943 655 327 - info@lizado.es

HERRIZ HERRIKO SANJOANETAKO EGITARAUAK

TOLOSA

Ekainak 23, osteguna
San Joan bezpera

10:30. Jubilatuztzentzat meza San Frantzisko elizan.
11:30. III. Helduen Egunaren hasiera Iturriza, Harizpe eta Beti Gazteak elkarrekin antolatuta, Alde Zaharrean zehar.
14:00. Helduen bazkaria Zerkau-sian eta dantzaldia.
17:00. Udal Txistulari Bandaren kalejira, antzinako erronda-bidetik barrena.
17:00. Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren irteera, Gernikako Arbola Lorategitik.
18:00. Jaien hasiera iragartzeko, txupinazoa Udaletxeko balkoitik eta kanpai-iraulketa.
18:00. Iraunkorak txaranga kalez kale ibiliko da.
19:00. Plaza Zaharrean, haurrentzat San Joan su txikia, Tolosako Musika Eskolako Ikasleen bandarekin.
19:30. Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestraren kontzertua, Berdura plazan.
19:45. Udalbatza Plaza Zaharretik abiatuko da Arrameleko San Joan kaperako bezperetan eta arrats otoitzetan parte hartzeko.
22:00. San Joan sua piztuko da Andre Maria Plazan, Udalbatza bertan dela. Ondoren, Udaberri dantza taldeak, Hodeiertz abesbatzak eta Tolosako Udal Musika Bandak jardungo dute. San Joan zortzikoa jo ondoren, Musika Banda kalez kale ibiliko da.
23:00. Kontzertua Plaza Berrian: Skakeitan.
23:30. Kontzertua Lopez Mendizabal plazan: Puro Relajo.

Ekainak 24, ostirala
San Joan eguna

07:00. Zinegotziei deia, Tolosako Udal Txistulari Bandaren eskutik.
08:30. Diana, Tolosako Udal Musika Bandaren eskutik.
09:30. Plaza Zaharrean eskopetariak eta Tolosako Udal Musika Banda bilduko dira. Diana, desfilea eta, ondoren, San Joan Alardea, Gipuzkoako antzinako foru-milizien oroimenez, Udalbatza buru dela.
10:00. Meza Nagusia Andre Maria parrokian. Santa Maria Musika Kaperak parte hartuko du. Ondoren, Prozesioa. Bertan parte hartuko dute Udalbatzak, kofradiek, bordondantzariak eta erraldoiek; aldi berean, elkarrekin eskopetariak ordenantzetako salbak botako dituzte betiko tokietan. Elizkizunak amaitu ondoren, eskopetari konpainiak Euskal Herria pla-



zan bilduko dira berriro, bertan azken deskargak egiteko.
13:00. Kontzertua, Berdura plazan, Tolosako Udal Musika Bandarekin eta Tolosako eta Iruñeko udal txistulariekin.
16:40. Udalbatza, Tolosako Udal Musika Banda, txistulari, bordondantzari eta eskopetariak Plaza Zaharretik abiatuko dira, Andre Maria eliza nagusiko bezperetara joateko.
Ondoren. Arrameleko San Joan kaperan izango diren arrats otoitzetan parte hartuko dute. Elizkizuna amaitzean, Udalbatza, bordondantzariak, txistulariak, Udal Musika Banda eta eskopetari konpainiak Trianguloan bilduko dira, bertan Udalbatzak Esku-aldatzeko soina eskainiko du, eta azken deskargak egingo dira. Ondoren, Udalbatza Zumardiaundira joango da eta ohi-turazko *Aurreskua* dantzatuko du bertan.
20:00 eta 23:30. Klean txaranga kalez kale ibiliko da.
23:00. Suak: Vulaco piroteknia.
23:30. Dantzaldia Orquesta Tsunami taldearekin, Lopez Mendizabal plazan.
23:30. Kontzertua Plaza Berrian: Dupla eta Muxutruk.

Ekainak 25, larunbata
10:00. Beotibar pilotalekuan, Zesta Punta Eskolak antolatuta, San Joan Zesta-Punta nesken txapelketa.

11:00. Haurrentzako Jolas Parkea Alodegia plazan.
12:00. Herri Kirolen erakustaldia Trianguloan; Ugaitz Mugerza, Iñaki Azurmendi, Karmele Gisasola, Lucia Orbe, Jokin Eizmendi eta Jose Martin Bustinza
12:00. Tolosa Kantari taldea kalez kale ibiliko da, herria kantuz alaitzen.
16:00. Haurrentzako Jolas Parkea Alodegia plazan.
17:00. Zentzuxkak haurrentzat Tolosako zezen plazan (Fraskuelo Peñaren 25. urteurrena).
19:00. Berdura plazan, San Joan Sagardo Txapelketa. Txapelketa bitartean, dastatzea: bakailaoa, sagardota egositako txorizoa eta sagardoa. Antolatzailea: Batasuna elkarte.
20:00. Kontzertua Euskal Herria plazan: Joseba Tapia.
23:30. Dantzaldia Joxe Mendizabalekin, Lopez Mendizabal plazan.
23:00. Kontzertua Plaza Berrian: Bulego.

Ekainak 26, igandea
10:00. Tenis Txapelketako finalak Berazubini.
11:00. Haurrentzako Jolas Parkea Alodegia plazan.
12:00. Bertso jaialdia Berdura plazan: Maialen Lujanbio, Ohiana Iguaran, Unai Iturriaga eta Haritz Mujika. Gai-jartzailea: Iker Iriarte.

16:00. Haurrentzako Jolas Parkea Alodegia plazan.
19:00. Euskal Herria plazan Arnas Berriz kontzertua: Udal Txistulari Bandaren eskutik eta hainbat eragileen artean antolatua.
20:00. Kontzertua Plaza Berrian: Kerobia.

ABALTZISKETA

Ekainak 23, osteguna
San Joan bezpera
21:15. Abaltzisketako txalburu jaitziera.
21:30. San Joan sua eta ondoren, XXXII. *San Juan dantza* eta *soka-dantza*.
Jarraian. erromeria Izer eta Alabierrekin.

Ekainak 24, ostirala
San Joan eguna
11:00. Meza nagusia eta ondoren, hamaiketako erretirodunentzat. Bitartean, triki-poteoa herriko gazteen eskutik.
12:30. IX. Aitor Toka Txapelketa.
14:30. Bertso bazkaria Larraitzen Iker Zubeldia, Iban Urdangarin eta Jexux Mari Irazurekin.
21:00. Barrikotea egingo dute herriko plazan (afaria norberak eramanda).
Jarraian. Erromeria Obaneuke taldearekin.

Ekainak 25, larunbata
11:00. Ume jolasak. Eguraldi ona izanez gero, ur jolasak egingo dituzte.
15:30. XVIII. Mus Txapelketa, herri-tarrentzat.
21:00. Sagardo dastatzea herriko plazan. Afaia norberak eraman behar du.
Jarraian. Erromeria Iratzar taldearekin.

Ekainak 26, igandea
12:00. Herriko gazteen pilota partidak.

18:00. XXI. Zaldi Lasterketa Amezketatik Abaltzisketara.
Ondoren. Aire Ahizpen kontzertua, elizan.
21:00. Herri afaia, afaia norberak eramanda.

BELAUNTZA

Ekainak 23, osteguna
San Joan bezpera
11:00–13:00. Puzgarriak frontoian, 2 eta 12 urte arteko haurrentzat, eta haurrentzako jolasak eta tailerak plazan.
12:00. Txupinazoa.
16:00–18:00. Puzgarriak frontoian.
21:00. San Joan sua.

Ekainak 24, ostirala
San Joan eguna
10:00. Arku tiroa.
11:00. Meza San Joan elizan.
12:00. Toka txapelketa eta ondoren, hamaiketako irabazleentzat.
17:30. Paxo ipuin kontalaria haurrentzat.
22:30. Mus txapelketa herrikoia, Martintxo elkartean.

Ekainak 25, larunbata
16:30. Bolo eta toka txapelketa ofiziala.
21:00. Herri afaia frontoian. Txartelak ostatuan erosi beharko dira; helduek 20 euro ordaindu behar dituzte eta 14 urte artekoek 5 euro.
Ondoren. Disko festa DJ Watsufly eta DJ Black Hobbit-ekin.

Ekainak 26, igandea
17:00. Lopene ganaduak; poneyak eta zezen txikiak herriko plazan.
19:00. Saiheski jatea eta sagardo dastatzea, plazan.
Ondoren. Suziriak izango dira ikusgai, San Joan festei amaiera emateko.

PEAGE

Pope Jeans LONDON | Levi's | Schott NYC | REPLAY | G-STAR RAW

Emeterio Arrese, 5. Tolosa. 943 69 80 49

galdaratx horts klinika | clínica dental

Zurekin hobetuz

ONDO PASA SANJOANAK!

Endodontzia | Implantologia
Aho kirurgia | Periodontzia
Ortodontzia | Hortz estetikak
Panoramika 3D | Protesia
PADI Osakidetza

Rondilla kalea 5, 20400 Tolosa, Gipuzkoa
943 50 84 24 | galdaratx@gmail.com

Gorka Lopez Ugartemendia
kolegiatu zenbakia: 20000691



LIZARTZA DA TXAPELDUNA

Gipuzkoako Segia Sail Txapelketa Aizarnako Aranburu landetxerean ondoko zelaietan egin dute. Mila metro koadroko sail bana ebaki behar izan dute. Lau segalari aritu dira nor baino nor, eta Mikel Lizartza tolosarra nagusitu da. Lizartzak 43.49ko denbora egin du; bigarren Julen Gabirondo sailkatu da, 44.36rekin; hirugarren egin du Iban Pardok, 45.10ekin, eta laugarren Jon Otegik, 45.56rekin. IBON ERRAZU



IRABAZLEAK ERABAKITA

Enara Macicior Hernani taldeko eta Izaro Etxarri Txulobi pilota taldeko bikoteak 25-13ko emaitzaz irabazi dute Behar Zanak Sara Iruetagoiena eta Ane Kerejetaren aurka, kadete eta jubenil mailako pala txapelketako finala. Nagusi izan dira partida osoan zehar eta Ereñotzuko Macicior aurrelaria nabarmendu da. Pala txapelketako ligaxka 10 bikotek jokatu zuten. Behar Zana eta Txulobik antolatutako txapelketa izan da, eta Elorrioko Hori Hori, Alegiako Intxurre, Zumaiako, Hernaniko, Adunako Txulobiko eta Behar Zanak 20 neskak parte dute guztira. ATARIA

Nerea Arruti eta Amalur Arbelaiz dira txapeldun berriak

II. Emakumeen Binakako Euskal Pentatloi Saria irabazi dute, marka berria ezarriz; bigarren proban, giza proban, abantaila hartu eta bukaeraraino mantendu dute

Imanol Garcia Landa Tolosa

II. Emakumeen Binakako Euskal Pentatloi Saria irabazi dute Nerea Arruti eta Amalur Arbelaiz, Tolosako zezen plazan jokatutako proban. Marka berria ezarri dute gainera, 24.01 eginez. Bigarren izan dira Lucia Orbe eta Garazi Arruti (26.52) eta hirugarren Karmele Gisasola eta Uxue Ansorregi (27.39).

Orbek eta Arrutik pixka bat lehenago bukatu dute harri-jasotze proba, baina giza proban Arruti eta Arbelaiz aurretik jarri dira, eta bukaera arte mantendu dira lehen postuan. Azken proba, bi kilometro korrika egitea, abantaila handiz iritsi dira, baina bikote txapeldunak ahal duen guztia eman du eta marka berria ezarri du.

Oso pozik zeuden txapeldunak behin proba bukatuta. «Gure helburua ahalik eta ondoen egitea zen, eta oso ondo ikusi dugu gure burua hasieratik», esan du Nerea Arrutik. Harria altxatzekoan aurreko urteko irabazleengandik, Orbe eta Garazi Arruti, paretsu ateratzeak konfiantza handia eman die. «Korrikako proba dosifikatzen joan gara, eta banekien estu ibiliz gero, Nereari esango niola bi buelta gehiago emateko», esan du Arbelaiz. «Izugarrizko pozarekin» amaitu dute, «sinistu ezinik».



Lucia Orbe, Garazi Arruti, Nerea Arruti, Arbelaiz, Gisasola eta Ansorregi. I.G.L.



Nerea Arruti eta Amalur Arbelaiz, garaipena ospatzen. I.G.L.

Garikoitz Etxeberria amasarra da euskal pentatloi probaren antolatzailea, eta beldur pixka bat bazutela esan du proba hasi aurretik: «Arratsaldean [larunbatean] egiten zuen beroarekin zailantza handiak genituen, ekitaldia atzeratuko ote genuen, baina

aurreikuspenak bete dira, eguraldiak hobera egin du, eta aurreikusitako orduan hasi gara». Balantze oso ona egin du Etxeberria: «Plazan maila on batean aritzeko gaitasuna dutela erakutsi dute, eta sei partaideek saio izugarria egin dute».

Tolosak ezin izan dio finalerdiari buelta eman

Erredakzioa Tolosa

Lan zaila zuen Tolosak eta azkenean ezin izan du finalera pasa. Asteburuan jokatu dute Tolosako pilotariak Azpeitiaren aurka, Herriarteko Pilota Txapelketaren finalerdiaren itzulera jardunaldia, eskuzko modalita-

tean. Azpeitian jokatu du Tolosak eta 3-0eko markagailua jaso du aurka.

Etxean jokatutako joaneko jardunaldian 2-1 kontra bukatu zuen Tolosak, eta neurketari buelta ematea oso zaila zuen, aldeko tanto gutxi lortu baitzituzten. Azkenean, itzulera jardun-

naldian jokatutako hiru partidak galdu zituzten tolosarrek. Kadeteetan, 22-7 izan zen markagailua; jubeniletan 22-18 eta nagusietan 22-12. Azpeitiak jokatuko du, beraz, txapelketako finala eta bere aurkaria Oartzun izango da. Iazko finala errepikatuko da eskuzko modalitatean.



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Tolosako Gobernu Batzarrak bi mila eta hogeita biko ekainaren zazpian, besteak beste, ondoren jasotzen den erabakia hartu zuen: Hasierako onespina ematea «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko Urbanizazio Proiektuari.

Espedientea jendaurrean egongo da, HOGEI egunez, alegazioak egin ahal izateko, azken argitaratzea egin eta hurrengo egunetik aurrera.

Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da 2022ko ekaunaren 17an, 115. alean.

Tolosan, 2022ko ekainaren 20an
Alkatea. Olatz Peon Ormazabal



Joseba Lopez, helmuga zeharkatzen, Tolosako San Frantzisko etorbidean, larunbat arratsaldean. KARLIS

Joseba Lopez izan da indartsuena Tolosan

Caja Ruraleko txirrindulariak irabazi du Jose Mari Anzaren Oroimenezko XLIV. Saria; Iñaki Diaz tolosarra, bigarren

Erredakzioa Tolosa

Caja Rural taldeko Joseba Lopez txirrindulariak irabazi du Jose Mari Anzaren Oroimenezko XLIV. Saria. Iñaki Diaz taldekide tolosarra bigarren izan da etxeko lasterketan.

Oriako Txirrindulari Eskolak antolatzen duen afizionatu mailako proba igandean jokatu zen Tolosan. Bertan hasi eta bukatu zen, eta hiru itzuli eman zizkion Alegia-Ordizia-Larraitz ibilbideari. Hain justu, irabazleak bigarren itzulia egiten ari zela alde egin zuen bakarrik. Ordurako taldetxo bat ihes eginda zihor, eta horien artean Caja Ruraleko hiru taldekide zeuden. Lopez bakarrik iritsi zen San Frantzisko etorbideko helmuga-

ra, eta bigarren postuaren lehian hiru txirrindulari iritsi ziren esprintean. Azkarrena Diaz izan zen, eta hirugarren postuan Andrew Wollmer (Arabay Cycling) helmugaratu zen.

Lopez pozik zegoen lasterketa irabazita, denbora luzez probarik bereganatu gabe egon ondoren: «Proba gogorra izan da beroarengatik. Denbora asko egon naiz lanean, arazoak izan ditut, pandemiarengatik eta, baina lana eta esfortzuarekin dena lortzen da». Azkenean minutu bateko aldearekin helmugaratu zen Lopez: «Ihesaldian taldekideak nituen, eta banekien babes-tuko nindutela. Ikusten nuen ni harrapatzea zaila zela, Arabayko txirrindulari bat bakarrik baitzegoen tiraka». Garaipena lortuta,

oso hunkituta zegoen Caja Ruraleko txirrindularia.

Bere aldetik, Diaz tolosarrak ere lasterketa gogorra izan dela esan zuen, «beroarengatik bereziki». Taldearen aldetik oso ondo moldatu direla esan zuen: «Indartsuenak izan gara. Josebak ihes egin du eta sekulako erakustaldia eman du, eta nik bigarren egitea lortu dut. Denboraldiko lehen podiuma egin dut, etxean, eta ezin dut gehiago eskatu».

Mendiko saria Joseba Lopezentzat izan da eta Tolosaldeko lehen txirrindulariaren saria Iñaki Diazentzat. Taldeka Caja Rural gailendu da. Guztira 128 txirrindulari atera ziren, baina beroarengatik hainbatek proba utzi dute. Azkenean 40 inguru iritsi ziren helmugara.



DEL POZO, IRABALE
Paula Del Pozo triatloilari alegiarrak errelebo mistoen Espainiako Txapelketa irabazi du Saltoki Trikideak talde nafarra- rekin, Coruñan egindako proban. Del Pozorekin batera Ira- txe Arenal, Joan Reixach eta Ander Noain triatloilariak aritu dira lehian. Saltoki Trikideak 1.02.29ko denbora egin du, bi- garren izan diren Diablillos de Rivasek 1.02.51, eta hirugarren postua lortu duten CEA Betera taldekoek 1.03.44. FETRI



BERTAN BEHERA
Euskal Inertzia Koparen Belauntzako proba bertan behera geratu zen. Igandean egin behar zuten, baina beroketa proba egiten ari zirela pilotu batek istripua izan zuen eta ibilbidetik atera zen. Antolakuntzakoek jakitera eman zutenez, parte hartzaileak ez zuten ezer larririk izan. Irudian, parte hartzaileetako bat beroketa saioa egiten. LEYRE CARRASCO

Hilberriak eta urteurrenak

Ataria jarrita Urola Kostako eta Goierriko Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu



-ESKERTZA-

Beatriz Telleria Telleria

Ekainaren 17an hil zen.

- Goian bego -

Gauero ezkututzen da
eguzkia itsaso aldetik
baina zu ez zara aldenduko
gure bihotzetatik

Familiak, jasotako babesa eta maitasuna eskertzen dizue

IDIAZABALEn, 2022ko ekainaren 21ean.



ASTEARTEA, 2022KO EKAINAK 21
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 21

AGENDA

Deialdiak

Aduna. Loatzo musika eskolako ikasturte amaierako emanaldia, plazan, 18:30ean.

Berastegi. San Juan garaia: 10:00. Ikasturte amaierako emanaldia. Jarrera, buruhandi eta zezanak. 17:00-18:00. Gimnastika erritmikoa. 18:30-19:30. Judoko ikasleak.

Ibarra. Lurtaro Kooperatibaren Estatutu proposamenaren aurkezpena, plazako estalpean, 18:30ean.

Irura. Etxeko kontsumoa tarifa elektriko berrietara egokitzen ikas-teko saio praktikoa, eskolako aretoan, 18:00etan.

Irura. Irakurle taldean Patxi Zubizarretaren *Eztia eta ozpina* eleberriaz hitz egingo dute, idazlea bertan dela. Liburutegian, 18:30ean.

Tolosa. Mus Txapelketa, Iturriaz jubilatuta eta pentsionisten elkartearen lokalean, 10:00etan.

Tolosa. Bizitzien ikastea, hiltzen ikastea dibulgazio hitzaldia, Belen Capaperen eskutik (gaztelaraz), kultur etxean, 18:00etan.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Magazina.

15:00. Letren errepublika. Literaturari buruzko saioa.

16:00. Zehrabidea. Magazina.

20:00. Haimaren saioa. Zegama-Aizkorri mendia maratoiaz.

28 KANALA

08:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!

11:30. Gaurkoan Tolosaldeko

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko
19:00. Elkarrizketa
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Saio Berezia (Oroimenerako Kontzertua)

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. E. Mujika. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

TOLOSA. Gauekoa. L. A. Morant. Zabalzarretalorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro aldakorra. Goizean hodeiak oso ugariak izango dira eta han-hemenka euri-langar pixka bat egingo du. Eguerdian eta arratsaldeko lehen orduetan hodeiak eta ostarteak eta giro argia izango dira. Azken orduetan bero-hodeiak garatuko dira, baina apenas lehertuko den ekaitzik. Tenperatura igo egingo da, 26-27 graduan joz goia.

Bihar. Giro ezegonkorra. Egun osoan zehar hodeiak nagusi izango dira eta hodei hauek zaparradak utziko dituzte. Goizean tartekatuagoak eta ahulagoak izango dira eta arratsaldean aldiz, mardulago eta ugariago egingo du. Tenperatura jaitsi egingo da, 21-22 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.



EUSKARALDIRAKO BIDEOKLIPA

Euskaraldiaren bideoklipa egiteko grabaketak egin zituzten atzo Tolosan. Horretarako, Tolosaldeko euskaltzaleen laguntza eskatu zuten, 16 urtetik gorakoena, hain justu. Gainera, bizikletaz agertzeko deia egin zuten. Bada, deialdiak erantzun ona izan zuen, eta jendea gerturatu zen euskararen aldeko ekimenaren bideoklipetan agertzeko gogoz. Alde Zaharreko hainbat txokotan egin zituzten grabazioak. JOSU ARTUTXA

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus - 107.6 fm -



Jose Miguel Iturrioz kalea, z/g
Tel: 943 165 301. BEASAIN



gorriti | martínez

PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHOAK